

# LANBIDE HEZIKETAKO IKASLEEN LANERATZEA



## LH-ENPRESA

- Ikasketa **orduen %25 inguru enpresan** bertan ematen da.
- Enpresetako praktikek lan-merkatua eta enpresen beharrak ezagutzeko aukera ematen dute.
- Ikasle asko praktikak egin dituzten enpresan bertan gelditzen da lanean.

## ESKAINZA ETA ESKAERAREN ARTEKO LOTURA

- **LHko ikasleek lana topatzeko batzbesteko denbora 26,7 eguneko** da (2008ko promozioa). Unibertsitateko ikasketak dituztenek 8,5 hilabete behar dituzte lan esanguratsu bat topatu arte.

## LH-UNIBERTSITATEA

- Espainian, unibertsitateko **matrikulazioen %8,3-a Lanbide Heziketatik** datozen ikasleak dira.

## INFORMAZIO ITURRIAK

- Ikasketxeek emandako datuak: Enpresagintza, Zuazola-Larraña, Aretxabaletako Lanbide Eskola, Miguel Altuna Institutua, Mariaren Lagundia Ikastola eta Arizmendi Ikastola
- Eustat. EAEko Eskola Jarduerari buruzko estatistikak. 09-10
- La FP en España. Oriol Homs. Colección de Estudios Sociales, nº25. Fundación La Caixa. (2008)

## Debagoiengan Lanbide Heziketa 10/11 ikasturtean bukatu duten ikasleen ia %60-ak lanean dihardu

Hurrengo lerroetan eskualdeko **6 Lanbide Heziketako ikasketxeetako ikasleen laneratze-datuak** aurkezten dira. Datuak interpretatzeko orduan, kontuan hartu behar da, egungo egoera ekonomikoa eta lan merkatuaren egoera ere.

2010/11 ikasturtean 349 ikaslek bukatu zituzten Lanbide Heziketako ikasketak eskualdean. Horietatik ia **%60-ak lanean** dihardu.


Laneratze-tasa hobea daukate **Goi mailako zikloak ikasi dituztenek, %64-a** ari baita lanean. **Erdi mailako zikloa** ikasi dutenen artean laneratzea **%53-koa** da.

Zikloaren mailaren arabera lan-merkaturatzean desberdintasun nabarmenak daude, batez ere ikasten jarraitzerako orduan; adibidez, **Erdi Mailako zikloetako ikasleen %30-ak ikasten ja-**

**rraitzen du.** Goi mailako zikloetan, ordea, ikasten jarraitzen duen ikasle kopurua askoz baxuagoa da, %16koa hain zuzen ere. Ikasketak jarraitzerako orduan, Lanbide Heziketak aukera desberdinak eskaintzen ditu, ohikoak: erdi-mailatik goi-mailakora pasatzea, sarbide-

Lan gabe dauden ikasleen kopuruak nahiko parean mantentzen da, mailaren arabera: **Erdi mailako ikasleen %17-a dago lan-gabezian eta Goi mailako ikasleen %18-a.** Lan merkatuaren egoera ikusita datu onak direla esan daiteke.

Debagoieneko LHko ikasleen laneratze-datuak (10/11 ikasturtea)



frogen bidez edo goi-mailatik unibertsitatera, nota edota selektibitateko nota espezifikoen bidez. Familia bereko bi heziketa ziklo egitea ere ohikoa da.

## LH-KO IKASTETXE HAUEN DATUAK :

Enpresagintza, Zuazola-Larraña, Aretxabaletako Lanbide Eskola, Miguel Altuna Institutua, Mariaren Lagundia Ikastola eta Arizmendi Ikastola. Ez dira kontuan hartu Mondragon Goi Eskola Politekniko datuak.

## Lanbide Heziketa ikasten duten emakumezkoen laneratzea, gizonezkoena baino azkarragoa da

Ikasketak bukatu eta urtebetera **emakumezkoen %74,3-a** lanean ari da. Aldiz, denbora berean **gizonezkoetan %66-koa** da datu hori. Gainera datu hau matrikulazio maila altua duten ikasle-ta-familietan ere ematen da.

## KATEGORIA PROFESIONALAK

Lanbide Heziketako tituludunak lanbideen sailkapenean honako lanetan aritzen dira gehienbat: Laguntzarako profesional eta tekniko mailan (%23,4), zerbitzusektoreko langile (%21,6) eta industriako langile kualifikatuak (%20,5) kategorian.

Beste muturrean, LH ikasi dutenen %4,5-a bakarrik sailkatzen da langile ez-kualifikatuak kategorian.

Azpimarratzekoa da Lanbide Heziketako langileetan lanbideen okupazio mailari dagokienez, azken urteetan eman den iguera.